



ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

altzakohm@euskalnet.net

Lau-Haizeta, 21-3. ezk. 20017 ALTZA

Lege gordailua: SS103/97

ESTIBAUS

"aiuntados en el campo de Estibaús según que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

NUMERO 16 / 2000KO apiril a

Misiolari altzatar baten eskutitza Japoniatik

Iñigo LANDA

Donostiako Elizbarrutiko Histori Artxiboan gorderik daude Japonian misiolari aritutako altzatar batek idatzitako bi gutun. Gutunak 1923. eta 1925. urteetan idatziak daude eta orduko San Martzial parroko bi apaizei zuzenduak zeuden. Lehen gutuna Ponapeko misioan kanpai bat jartzeko laguntza eske idatzi zuen, eta bigarrena jasotako laguntza hori eskertzeko. Misiolaria zein zen ez dakigu. Artxiboaren laburpenak J.O.L. laburdurak besterik ez dizkigu eskaintzen eta gutunetan Erramun J.O. bezala sinatzen du. Ponape Mikronesian (Ozeania) dago eta, garai horretan, 1919. urtetik eta Munduko II. Gerra bitartean, Japoniaren menpe egon zen.

Euskaraz idatzitako gutun hauek urte horietako altzatar ilustratu baten euskara erakusten digute eta bertan, herrimina atzematen bada ere, Ponapeko jendareekin eta lurraldearekin atxikimendu handia azalarazten dute.

Ponape, Kiti

1925eko Mayatza

Aspaldiko nere D. Meliton ta D. Joakin: Larunbat santu ezker mundubaren atzeneko ixkiñ ontan, alzatarren kanpaitxua ariñ ta gozo badabill bada. Ez al da oneraño irixten burrundara? Ez da bada izango emengo mutiko abek al duten guztiyan gogor astintzen ez dutelako. Ta ez txikiyak bakarrik aundiya ere betik gora soka zulotik barrena, parrez egoten dira gure kanpaitxuak nolako saleroz jira bira egiten duben begira begira. Bejondeizutela, alzatar maite maitiak. Egiya esan, kanpai au gabe nik bizi naizen arte ez nuben artuko Alza baño kanpai au ari t'ari danetik ba al dakizute burura ta biyotzera ere bai, etortzen zaitela, noiz edo noiz berriz iritxiko ote naizen Alzagaiñera? Onera etortzeko, orain zeruban dan nere ama or nai atzen agur egin niyon egun berian. D. Melitonek eta D. Jokinek badakite, amagana jua baño len gozetik Alzara igo nitzan nere S. Marcial maiteari atzen agurra egitera, batiyatu nitzan pontiari ta oraiñ elizan ate onduan daukazutenari muiñ ematera, ta nere osaba zanaren lur bedeinkatubaren aurrian zenbait otoiitz egiten ta egiya esan, atzen agur abek

orduban urtez beti betiko egin nituben ta mundu ontaroko biñipin nere ama gaixuak ala gertatu da. Baño Alza ez da ortik juango ta ikusi ez dan mirariya izango al litzake bada, noiz edo noiz ni berriz Alzagaiñeraño irixtia? Ta an diyotanian balitezkenak bi datozkit batian biyotzera, ta betxek esandakuan jardun au amaituko det gorua izan da ere geyegiyak aspertu etzaitzaten. Ta bat da, txokorik lurrian bada maiterik nik Alza, nere jatorriko kabiya bezela maite-maitia izan arren, ala ere Jaungoikuak nai dubela, bizitza guztiyan pozik eta pozik ementxe bizi ta ementxe illko nitzakela. Zergatik badakizute? Baso abetako gizarajo abei abek ere guk bezelaxe, betiko zeruba edo betiko inpernuba zai daukate ta, abei zeruratzen laguntzeagatik. Ortik onera mixiolariyak ez badator, gizarajo apaizak abek beren artekoa noiz izan? Urte saill batian ez biñipin. Apaizaren peniya bai aundiya zeruratuko badira. Ez nik ez zubek or ezin igarri zer dan millaka urtietan iya oraindaño jentill izan, ta oraingo kristau berriyak izatia batere beren kulparik gabe, baño oraindaño ikusi ta ikasi dutena ta orain bertan kristau ez diranen artian ikusten dutena t'aben oituretan kristau bizitzak noiz zaiñak egin? Baño baita ere, nere

ustez egiya da, onera mixiolariyak baldin badatoz, emen kristau bizitzat zaiñak iñon bezin senduak eta mardulak aziko ditubela, jende au, basatiya bada ere berez argiya t'apala dalako janian, jantziyan, bizikera guztiyan, aben lañotasuna t'apaltasuna, ez da or errez xiniestekua.

Urt'erdi batian, orko patat'antzeko janariya baño arru erdiko arruako ta geyogoko aliak. Beste janariya arbol aundiyan datorrena da, orko kalabaza koxkorren antzekua. Bai bat eta bai bestia, ortaroko berariz dituzten txaboletan, arri leun borobilleko pillen artian, oso egoki erretzen dituzte ta janari onak dira biyak. Bigarren ori oraiñ jaten ari gera ta orko arto berua edo panpandoja sagar erria bezin gozua ta guziya da. Familiyak saillka bildu t'astian iru bat aldiz erre aldiyak egiten dituzte. Orduban erretzen dutena ostrozko saski pollitetan gorde beren txaboletan zintzillik ipiñi, ta txiki t'aundi gosetzen diranian, andik artu ta jan, ona aben gosari, bazkari, t'apariya. Noizian beiñ, batez ere norbait illtzen danian, jendetzak bildu ta txerri jate andiyak egiten dituzte jania bezela jantziyan, etxeko gauzetan etzenuteke esango zer gutxi biar duten bizitzeko ta ala ere iñoren inbiri gabe bizi dirala ain

>>>> segi 2. orrialdean

Estibaús-1

IV. Beca de Investigación sobre Altza (1999)

" Altza herriko familiari buruzko ikerketa etnografikoa "

El pasado 19 de marzo fue presentado en el Hogar del Jubilado San Marcial el resultado de la beca del año 1999 que lleva por título "Altza herriko familiari buruzko ikerketa etnografikoa", y que hace el número 3 de la colección Artiga.

El estudio nació con el objetivo de conocer y salvaguardar en un modo escrito una forma de vida antaño mayoritaria en Altza, y hoy apenas conocida: la de la familia tradicional en nuestro entorno rural.

Para poder llevarlo a cabo de manera efectiva, se ha seguido el modelo de encuesta etnográfica realizada por Joxe Miguel Barandiaran, asimismo aplicada en otros puntos rurales de Euskal Herria y que sirve de guía para acercarnos a las costum-

bres baserritarras en torno a este tema a través de las preguntas que conforman el cuestionario.

Su realización requería la existencia de tres generaciones en una misma unidad familiar, que pudieran informar convenientemente de los posibles cambios acaecidos en los usos familiares. Han sido las familias de los caseríos Akular, Bordazar, Kastillun y Pelegríñene quienes gentilmente se han prestado a ello y las que nos transmiten las vivencias y recuerdos que se encuentran en las páginas de este trabajo. La labor de recogida de información ha sido completada con los datos deparados de las conversaciones mantenidas con las familias de los caseríos Txurdiñene, Irasuene e Illarregi.

(Los interesados pueden dirigirse a la Casa de Cultura Casares donde podrán adquirirlo por 200 pts.)

Altza herriko familiari buruzko ikerketa etnografikoa



Alex Ibañez Etxeberria
Itxaso Mendiluze González
Lirio Zubiaurre Otamendi
Maider Aierdi Serrano

Artiga *liburua*

3

" Zubieta, mila urteko herria " liburu berria

Hiru urte pasa dira Zubietak bere Herri Batzarra eta alkatea aukeratzeko ahalmena eskuratu zuela (ikus Estibaus 4. zenbakia). Usurbil eta Donostiari loturik segitzen badu ere, Zubietako Herri Batzarrek poliki poliki bere bidea irekitzen joan da eta baita emaitzak eskaintzen ere. Kultur arloan orain aurkeztuko dugun hau da nabarmenarikoa: Joxe Ramon Zubimendik idatzitako " Zubieta, mila urteko herria " liburua. Liburu hau Zubietako entziklopedia txikitat har genezake, bere baitan lurra, historia, argazkiak eta hamaika kontu baititu hizpide. Liburua mardula da. Zubimendik bilketa lan itzela egin du eta liburuaren bostehun orrialde luze horiek ez dira nahikoak izan, egileak berak adieraztera eman duen bezala, Zubietari buruz biltzea lortu duen guztia azaltzeko eta norbaitek lan honi segida emango dion itxaropenarekin eman behar izan du liburua argitara. Aurkezpenean adierazten den bezala, idazleak herriarentzat idatzi du liburua " tesi doktoraletako hizkera eta estiloa baino maiteago baitut herriaren euskara eta estiloa ". Poliki eta puskaka irakurtzeko liburua dugu hau, noizean behin kontsultatzeko, beti zerbait berri erakutsiko diguna. Gure liburutegian behintzat dagoeneko bere lekua hartua dauka.

Colección Local de Altza

En adelante será aún más fácil consultar la Colección Local de Altza.

Cuentas con cuatro maneras de realizar una consulta:

1. En Casares tienes a tu disposición una sala para "sumergirte" entre las fotos, documentos, etc. con o sin la ayuda de una persona que te facilite encontrar lo que buscas, los martes y jueves de 4 a 7'30 de la tarde.
2. Llamando al teléfono 943 35 11 49 (Tokiko Bilduma).
3. Por correo, (Casares Kultur Etxea -Tokiko Bilduma-. Darieta bidea, 1 20017 ALTZA)
4. Enviando un "emilio" por correo electrónico a esta dirección:
Altzakohm@euskalnet.net.




>>>> 1. orrialdetik dator

pakez illtzen dira lurraren gaiñian
 maindiretxo bat baldin badute, alkintxe.
 Abek nola ez bada errez irabazi
 Jesukristoren biyotza?
 Argatik diyot bada, gizarajo abei
 zerurutzen laguntzeagatik, Jaungoikuk
 ala nai badu, aben artian ill arte, bizitza
 guztiyan pozik biziko naizela.
 Biyotzera zetorkidan bigarrena da
 baldin noiz edo noiz ni berriz
 Alzagaiñian azaltzerik izango balitz,
 arren t'arren ez al nukela Alza nik
 ezagutu nubenetik aldatuta arkitutko.
 Gaztiak, mutill ta neskatxak gure Alza
 maitia aldatu nai badezute, ez Donosti
 aldera, San Marcos aldera aldatu
 zazute. Zenbat eta berago inpernu
 alderago, zenbat eta gorago zero
 alderago aldatu dezute.
 Euskaldunak beti menditarrak izandu
 gera ta menditarrak izan geralako
 euskal izatia gorde degu. Maite gaztiak
 jaiegunetan batez ere euskal izatia garbi
 gorde nai badezute, maite Alzagaiña.
 Ta goguagarriko mixiyo artan
 moldatutako mutill gazte talda eder
 arrek zer egin zuben?
 Begirayozute. Emen ere moldatu degu
 amabost urtetik gorako mutillen talda.
 Ez nuben uste ain ederki ta sendo
 jardungo zutenik. Igandero meza
 ondoren dotriña, ta illero beren
 jaunartzia. Jakiña da emen ezin asko
 izan berrogeitamaika dira. Or umiei
 bezelaxe ikasgaya izendatu ta gero
 galdetu ere bai. Ikusko bazenuteke ze
 benetan jarduten duten ta galdetu ta
 norbaitek ez dakiyenian ze parrak beren
 artian egiten dituzten. Ta jaunartzeko
 eguna berriz zubentzat or pest' aundiko
 egun bat bezala da. Gizarajo abek
 ordurako al dutenez ikusgarri apaintzen
 dira. Goiz eta artsalde, kantu guztiya
 berak eta beren erreskaretan nolako
 zuzen ibilli gero.
 Egi-egiya esaten dizutet emen daukaten
 pozik aundiya gazte talde' ortantxe
 daukat.
 Bai Alzakiko etorkizunaren ustia orko
 mutill gazte taldean daukat ta ori
 galtziak nerretzat Alzaren etorkizuna
 asko illunduko luke. Ez mutillak
 emengo mutillak baño gexiango zor
 diyozute Jaungokuari, ta zuben lagun
 talde orri benetan eutsi t'apa gora.
 Agur, agur S. Marzielek zubei ta neri
 oniritxi dizaigula. Aspaldik ta betiko
 Erramun J.O.

La peluquería de Buenavista

Fernando ETXAURI SALDIAS

Los primeros vínculos de la Peluquería Etxauri con el pueblo de ALZA se remontan al año 1940, donde Dionisio Etxauri recién terminada la guerra civil se instala en la Avenida de Buenavista nº 18. Si bien antes ya había tenido contacto con los alzatarras en el barrio de Herrera, siendo sus comienzos en la peluquería de su hermano Martín.



El Barrio de Buenavista era una ebullición de gente por aquella época, después de acabada la guerra, el Puerto de Pasajes estaba en pleno apogeo de trabajo. Eso se dejaba sentir en el barrio, que entonces contaba con la Tenencia de Alcaldía y las Escuelas Nacionales. Eran numerosos los barcos costeros que se acercaban a los muelles del Reloj y Saliente, (todavía no se había construido el muelle de Molinao).

La peluquería solía ser punto de encuentro de numerosos marineros, sobre todo asturianos, que traían carbón y gallegos con eucaliptos y cemento. En


aquella época el trabajo fuerte era el afeitado, que para algunos servía a la vez de lavado de cara.

El trabajo de la peluquería en Buenavista ha sido muy enriquecedor, porque nos dio la oportunidad de conocer a personas de diferentes razas y países.

Por los años 70 empezaron a aparecer por la peluquería, marineros de Cabo Verde (Colonia de Portugal en aquella época), que navegaban en barcos holandeses. Por entonces entre los negros estaba de moda el estilo «Afro» y nosotros, claro está, no habíamos cortado nunca el pelo a una persona de raza negra, pero gracias a la buena voluntad de ellos para enseñarnos y de nosotros para aprender, conseguimos especializarnos en el tema.

La peluquería del nº 18 fue cerrada el 13 de mayo de 1.995, después de 55 años en actividad, trasladándonos dos días después al nº 20 de la misma calle (donde se encontraba el bar Goiko), iniciando una nueva andadura.

A pesar de contribuir al Ayuntamiento de San Sebastián, siempre hemos tenido el orgullo de pertenecer al pueblo de Alza, como así consta en nuestras tarjetas de presentación.



Tokiko Bilduma

Hemendik aurrera, Altzako Tokiko Bildumaren kontsulta errazteko eta aurreratzeko, lau forma ezberdinak izango dira:

- 1) Casares Kultur Etxean: Gela bat «zure burua galtzeko» egokitua eta gure laguntza edo/ala aholkularitzarekin, asteartero eta ostegunero (4etatik 7'30ak arte).
- 2) 943 35 11 49 telefonoan (Tokiko Bilduma).
- 3) Posta (Casares Kultur Etxea -Tokiko Bilduma-. Darieta bidea, 1 - 20017 ALTZA)
- 4) Altzakohm@euskalnet.net helbide elektronikoa zuen zain gaude.

Contadores: una ruina muy lucrativa

Comisión Pro-vivienda de Bidebieta

Cuando un grupo de vecinos decidimos preocuparnos por la vieja fábrica de contadores, ésta ya llevaba 15 años causando todo tipo de riesgos para nuestro barrio. En Bidebieta la alarma era constante debido a continuos incendios, presencia de vertidos, roedores, etc. De esta manera descubrimos que la entonces propietaria, Industrias Españolas S.A. tenía una deuda con la administración pública de 4.151 millones de pesetas. Informamos al barrio de este hecho, con la intención de recabar opiniones de los vecinos al respecto y pedir a la autoridad competente que obtuviera la titularidad de la parcela y le diese un uso. Pero para nuestra mayor sorpresa, en el pasado mes de enero, el Ayuntamiento promueve una modificación del Plan General de Ordenación Urbana para que una empresa que acaba de adquirir la parcela, construya 162 viviendas de promoción libre y 65 de protección oficial. Esta empresa, Centro Comercial Guardaplata S.L. pacta la compra por 525 millones y posteriormente nombra como administrador a José María Liria Mendizabal, a su vez Consejero y Secretario de la constructora Altuna y Liria S.A. Lo que en un principio podría ser un alivio para los vecinos se convierte en una operación muy oscura, porque: - las entidades de la Administración (Diputación, Seguridad Social, Fondo de Garantía Salarial, Ayuntamiento, SPRI, etc.) no llegan a un acuerdo para asumir la propiedad como acreedores que son.
- la nueva propietaria, mediante aplazamientos de pago, no tiene que hacer

efectivo el mismo, hasta mayo del 2001, pudiendo hacerlo gracias al dinero acumulado por contratos de ventas de pisos.
- para construir las 227 viviendas proyectadas, sé recalifican 15.000 m2 de una vaguada situada en el monte Ulia, calificados como suelo rural de protección especial. Se incluyen en el cómputo total para poder realizar esta operación.
- la recalificación del terreno se realizará cuando una empresa privada ya es propietaria del mismo, favoreciendo sus intereses y fomentando la especulación.
- la densidad de vivienda existente en Bidebieta, es superior al máximo autorizado legalmente, por lo que este proyecto sólo se justificaría siendo de promoción pública con el objeto de atajar el problema social de la falta de vivienda.

Ante la gravedad de estos hechos, presentamos ante los vecinos, en una reunión multitudinaria, nuestra alternativa a este atropello que consiste en exigir al Ayuntamiento que expropie o en su defecto compre la parcela a la constructora para que realice una promoción de vivienda pública total.

Los vecinos de Bidebieta junto con la Comisión, reunieron en menos de 10 días 700 escritos firmados con esta propuesta, el apoyo de 15 Asociaciones de vecinos de todo Donostia, así como el de partidos y sindicatos como EA, PNV, IU, EH, ELA, ESK, LAB.

Llegados a este punto, Odón Elorza y cinco miembros de su Corporación reciben a esta Comisión en el Ayunta-

miento.

En un primer momento el señor Elorza, tacha de muy grave las afirmaciones de nuestra alegación a la Modificación del Plan General, en torno a la terminología de la calificación del suelo de Contadores.

Por lo que no nos queda más remedio que demostrar que dichas aseveraciones constan en el propio Plan General y en la Exposición Pública del Avance de Modificación promovido por el mismísimo Ayuntamiento.

Después de esta gravísima metedura de pata por parte de la Alcaldía, entramos en las cuestiones que verdaderamente importaban.

Odón Elorza descarta la expropiación alegando que su coste sería muy grande. ¿Cómo lo sabe, si ni siquiera tiene voluntad de estudiar mínimamente qué posibilidades de gestionar públicamente existen en esta propiedad?

¿Cómo lo puede asegurar si esta parcela, con la calificación actual no posee ningún aprovechamiento lucrativo y cualquier organismo público encargado de hacer una valoración no la valoraría por más de 500 millones?

Al no obtener ninguna respuesta convincente, la Comisión Pro-Vivienda de Bidebieta pide que el Ayuntamiento no se conforme con maquillar esta operación mediante la firma de un nuevo Convenio con la propietaria, y que actúe con la responsabilidad suficiente para atajar el problema de la imposibilidad de acceso a una vivienda por parte de un sector mayoritario de la población.*

Argitarapen honen editorea laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*